



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA**Meñakako Udala****2020ko 3. hiruhilabeteko ura, zabor bilketa, estolderia y uraren kanonaren Erroldaren onarpena 74/2020 Alkate Dekretuz.**

Zergapekoak jakitun jartzen ditugu udal bulegoetan ikusgai dagoela 15 eguneko epean 2020ko 1. hiruhilabeteko ura, zabor bilketa, estolderia eta uraren kanonaren Errolda, interesdunek aztertu eta hala balegokio, euren ustez egoki diren erreklamazioak aurkez ditzaten. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onetsita dagoela ulertuko da.

Halaber, zergapekoei jakinarazten zaie tasa eta kanon horiek honako baldintza haue-tan kobratuko direla:

1. Kobratzeko epea

Helbideratutako erreziboak 2020ko azaroaren 2an pasatuko dira kobratzera.

— *Borondateko epea*: Inolako gaitzirik gabe, 2020ko urriaren 27tik azaroaren 27rarte, biak barne.

Borondateko epea igaro ondoren, zorrak betearazpen bidez ordaintzeko eskatuko da, eta kasu horretan sortutako premiamendu gainordaina eta berandutza interesak ordaindu beharko dira.

2. Jakinarazpena

Iragarki honek adierazitako kontzeptuengatik zergapean dauden guztientzako jakinarazpenaren ondorioak izango ditu, Zergei Buruzko 2/2005 Foru Arauak, martxoaren 10ekoak, bere 100.3. artikuluan agintzen duena betetzeko.

3. Errekurtsioak

Errolda eta berarekin batera dauden likidazioak onesteko ekintzaren aurka birjarpen errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Alkate-Udalburuari iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita eta hilabeteko epean.

Meñakan, 2020ko urriaren 16an. — Alkatea, Aitor Ugarte Torre